

ESPERIENTZIAREN IZENA: Etxelila Emakumin Topalekua



ONARRIZKO DATUAK

- **Erakundearen izena:** Etxelila Emakumin Topalekua
- **Erakunde mota:** Publikoa.
- **Sortze-urtea:** 2013.
- **Jarduera-sektoreak:**
Enpatia sortzeko, ikasteko eta informazioa jasotzeko, jabekuntza sareak sortzeko, emakumeen berdintasuna, askatasuna, partaidetza eta presentzia sustatzeko.
- **Egitura:** Ondarroako Udalak eta emakumeen elkarte-mugimenduak batera kudeatutako gunea. Dinamizatzaile bat eta udaleko berdintasun teknikari bat.
- **Kokapena:** Artibai kalea 3, Ondarroa, Bizkaia
- **Webgunea:** <http://www.ondarroa.eu/es-ES/Servicios/Igualdad/Paginas/Etxelila.aspx>
<https://www.facebook.com/ondarroa.berdintasuna>
- **Esperientziak jorratzen dituen gaiak:**
 - Emakumeen parte-hartzea eta asoziazionismoa sustatzea bizitzako arlo guztietan, bereziki jabekuntza indibidualetik kolektibora enfokaturako jarduerak landuko dira.
 - Aldaketa soziala eta feminista lortzeko jarduerak estrategikoak bultzatzea.
 - Talde eta elkarte ezberdinen arteko elkarlana eta emakume anitzen arteko elkarlana sustatzea.
 - Emakumeen bizi-baldintzak ez ezik, jendartean duten tokia hobetzearen alde lan egitea.
 - Berdintasunaren inguruko prestakuntza, sentsibilizazioa eta informazioa sustatzea.
 - Berdintasunaren alorreko ikerkuntza, berrikuntza eta ikuspuntu berriak sortzearen alde egitea.
- **Jarduera eremua:** lokala.

HARREMANETARAKO DATUAK

- **Harremanetarako pertsona:** Idoia Zengotitabengoa / Rosa Baltar
- **Telefonoa:** 94 6134008 / 946833670
- **Helbide elektronikoa:** etxelila@ondarroakoudala.net - emakume@ondarroakoudala.net

SINTESIA

ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPEN OROKORRA:

Herrian urteetan jardun diren emakume eta feministentzako aitortza bat izateaz gain, haien arteko elkarlana eta koordinazioa bultzatzeko espazioa da. Horrela, Etxelilak emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko borrokaren erreferentzia-gunea izan nahi du.

Bere xede orokorra honako hau da: emakumeen topaketarako, eztabaidarako eta gogoetarako gunea izatea eta baita emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko borrokaren erreferentzia-gunea izatea ere.

Espazio dinamikoa eta irekia, herriko emakumeentzako tokia, enpatia sortzeko topagunea, ikasteko eta informazioa jasotzeko tokia, jabekuntza sareak sortzeko espazioa, eta emakumeen berdintasuna, askatasuna, partaidetza eta presentzia sustatzeko espazioa.

Ikuspegi horretatik egiten diogu aurre errealitate horri. Pixkanaka, askotariko zapalkuntza horien elkarreraginean eta intersektionalitatean jarduten dugu, zapalkuntza-sistema orotatik askatu eta Euskal Herri burujabe eta feminista baten aldeko borrokan.

TESTUINGURUA



Zeuden beharrak: Proiektu komunerako espazioa: Emakumeen elkarteentzako egoitza eta koordinatzeko gaitasuna izango duen tokia. Emakumeen topagunea sortzea: emakumeentzako espazio propioaren beharra.

Aldeko aurrebaldintzak: Ondarroako emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Udal Plana, emakumeen topagunea sortu beharrezkoak diren baliabideak esleituz. 2005. urtean I. Protokoloan zein II. Protokoloan beharrezkotzat jo den baliabidea Emakumeentzako jabeakuntza eskola. 2011: "Emakumeen eta mugimendu feministaren oroimena Ondarroan, euren aztarnen bitartez" ikerketak, atal berezi batean, "espazio propioa eraikitzeke proposamen feminista" jasotzen du. Herriko mugimendu feministaren eta emakume mugimenduaren aspalditik aldarrikapena.

Aurkako aurrebaldintzak: Aurrekontu zailtasunak. Espazio egokia topatzeko zailtasunak. Herriaren barruan erresistentzia ezberdinak. Generoaren zapalkuntza.

INFORMAZIO OROKORRA



Zer lortu nahi zen?

- Sustatzea emakumeen parte-hartzea bizitzako arlo guztietan, norbere jabeakuntzarik hasita jabeakuntza kolektibora.
- Bultzatzea jarduera estrategikoak aldaketa soziala eta feminista lortzeko.
- Sustatzea talde eta emakume ezberdinen arteko elkarlana.
- Lan egitea emakumeen bizi-baldintzak eta jendartean duten tokia hobetzeko.
- Prestakuntza, sensibilizazioa eta informazioa, berdintasunaren ikuspegitik.
- Ikerkuntza eta berrikuntza eta sortzea berdintasunaren alorrean.

Zer lortu zen?

- Emakumeentzako jabeakuntza eskola.
- Jarduerak irekiak eta mistoak.
- Elkartegintza: parte-hartze guneak.
- Emakumeen elkarte egoitza.
- GEUgAZ aldizkaria.
- Proiektu berritzaileak.
- Hezkidetzak: bestelako proiektuekin zubi lana.
- Munduko emakumeekin elkartasuna.
- Liburutegi feminista, hitzaldi aretoa, artegintza gela, erakusketak, eta abar.
- Emakumeen etxe sarea.
- Erreferentzia gune segurua bat sortzea

Nola lortu zen?

- Konpromiso politikoarekin baina batez ere herriko emakume elkarten etengabeko lanarekin.
- Hasieran, hausnarketa prozesu bat zabaldu zen Kontseiluko elkarteekin jakiteko ze motako etxea nahi genuen eta bakoitzak zer irudikatzen zuen espazio propio hori. Batetik, esperientziak ezagutu ziren eta, bestetik, hausnarketa herriratzeko jardunaldiak antolatu ziren.
- Emakumeen topalekua Ondarroako udalak eta emakumeen elkarte-mugimenduak batera kudeatuko gunea da. Titulartasuna udalak du, baina gunearen helburua ez da soilik udal jarduerak hartzea, baizik eta parte hartzeko eta elkarrekin kudeatzeko sistema baten bidez, emakume elkarten eskura zenbait lokal eta baliabide jartzea

Nork ahalbidetu zuten?

- Ondarroako Udala.
- Etxelila Emakumin topalekua.
- Emakumeen Udal Berdintasun Kontseilua:

- Boga-boga.
- UXU- Ondarroako emakumeen taldea.
- 7 Emakume en movimiento.
- Andrabanda feminista.
- Diapoo Liguete- Ondarroako Emakume Senegaldarren Elkartea
- Sare-konpontzaileak.
- ONE enpakatzaileak.

Indarrak eta ahuleziak/zailtasunak

Indarrak:

- Etxelila bizirik dago emakumeen elkarrekin etengabeko lanari esker.
- Artegitza gela: hau Etxelilaren berezitasuna da. Emakumeen sormen artistikoa bultzatzeko helburua du 7 emakume en movimiento elkarrekin kudeatzen du espazio hau adierazpen artistiko ezberdinak aldarrikapen ezberdinak zabaltzeko.
- Kudeaketa dagokionez kogestioa erabiltzen da. Praktikan, Etxelilako elkarrekin espazioko giltza daukate sartu-irtenak egiteko, eta etxea edozein momentuan erabiltzeko. Abantaila bat da emakume elkarrekin autonomiarentzat.

Ahuleziak/zailtasunak:

- Herrian dauden erresistentziak ezberdinak.
- Etxelila bitarteko bat bezala ulertu behar da eta ez helburu bat bezala. Oraindik lan gehiago egitearen beharra eta errekurtsio gehiago inbertitzearen beharra da, bai ekonomikoak bai giza baliabideak.

Arrakasta faktoreak

- Proiektu berritzaileak eta komunak egiteko aukera.
- Espazioaren erabilera askatasuna.
- Errebindikazio feministetarako erantzuteko elkarrekin desberdinen arteko koordinazioa.
- Berdintasun-politikatako baliabide publikoa izatea.

Ikasitako irakaspenak

- Proiektuen zutabeak irmoak izatea garrantzitsua da.
- Elkartegitza ezinbestekoa da.
- Etxelila amaitu barik dagoen proiektua da, amaitezina delako.

Egiteko era berriak sortu behar izan dira eta EHBFF behar honi moldatzeko ahalmena izan du.

EHBFF sortu zenetik aldagaitza sozial, politikoa eta ekonomiko handiak egon dira (Euskal Herriaren egoera sozial, politikoa eta ekonomikoan, feminismoaren garapenean eguneraketa, patriarkatuaren formetan, Euskal Herriko militantzia formetan, eta abar) eta EHBFF estrategia politikoa eguneratzeko beharri erantzuteko ahalmena izan du.

Etorkizunerako erronkak

- Udaleko batzorde guztiek Etxelilako espazioa erabiltzea ekintza eta jarduerak antolatzeko.
- Gero eta erabiltzaile gehiago izatea. Batez ere, gazteak eta emakume etorkinak.
- Gazteen partaidetza handitzea Etxelilan eta konplizeak diren gizonak erakarzea.
- Eraikinaren baldintzak hobetzea.